

HIZKUNTZEN PRINTZEA


Bonaparte, Europako ahots guztiak mapa batean

Louis Lucienen mapa bitxia zen oso. Bere azaleko orbanek ez zuten ez mendirik ez lakurik ez ibairik ordezkutzen. Hori gutxi ez, eta herrialdeen arteko mugak ez zeuden agerian bertan. Europar kartografia zen, zalantzarik gabe, baina ez bere osabaren egoitzetan agertzen zena. Louis Lucien, alabaina, Bonaparte peto-petoa zen, amets egiteko jaioa. Urrutien dagoen eskoziar irlatik abiatu eta kareliar baso, Piriniotako bailara, dalmaziar kobazulo eta baltiar portuak zeharkatu ondoren, enperadorearen ilobak kontinenteko hizkuntza guztiak katalogatu nahi zituen.

Horixe zen plana. Zerk bultzatzen ote zuen honelako egitasmoa? Akaso atzerrian, erbestean, jaio izate hutsak? Hain zen handia sustraitze eza? Louis Lucien, hain justu, Ingalaterran jaio zen, 1813an. Hiru urte lehenago, ingelesek itsasoaren erdian harrapatu zuten bere aita. Frantziatik ihes egin ostean, Estatu Batuetarantz zihoan Napoleonen anaia. Garai korapilatsu haietan, gerrak eta iraultzak elkarren segidan kateatzen ziren. 1815ean, Waterloo dena galdu zenean, Louis Lucienen gurasoak Estatu Pontifizioetan instalatu ziren. Txikiak hezkuntza anitza bezain sendoa jasoko du han. Natur Zientziak oso gogoko ditu, eta Kimika eta Mineralogian lizentziatuko da. Ordu-rako ezaguna da bere obsesiorako joera. Burua nekez altxatzen du liburuetatik. Ideia ona al da Ana Maria Cecchi florentziarrarekin ezkontzea? Hogei urte ditu Bonaparte gazteak, eta pentsatzeko denborarik ez. Azkenean, inertzia erabakiko du. Dibortzioa

 **HIZKUNTZALARITZA** / Karlos ZURUTUZA

Euskarari arreta gehien eskaini arren, Bonaparte printzeak askoz hizkuntza gehiago aztertu zituen bere bizitzan zehar. Korsikarrak, hain zuzen, Europako hizkuntza eta dialektoen mapa osatzea zuen helburu nagusi. Horretara eman zuen bizitza, ikerketa sakon bezain liluragarrian.



ia berehala eskatuko dio, baina ez dago traturik. Italiar emakumeak, baina, ontzat ematen du Bonapartetarrek Korsikan duten egoitza nagusian bizitzea, ardurarik gabe. Honela, aske da Louis Lucien Europa eta Estatu Batuetan zehar bidaiatzeko, mineralen bila. Gaiari buruz hainbat ikerketa eta artikulu argitaratuko ditu, baina ezin dira, inola ere, beste

honekin alderatu: «*Specimen lexici comparativi omnium linguarum europearum*». Hizkuntzalaritzari buruzko bere lehen lana da. Latina menderatu gabe ere, abiapuntua uler daiteke: Europako hizkuntza guztien lexikoa konparatzea. Bere ingurukoek bultzatuta, Louis Lucienek politikan ere sartuko du muturra. 1948an, esaterako, parla-

Bonaparte printzearen euskalkien mapa.
GAUR8

mentari bilakatuko da, baina dena askoz errazagoa izango da Napoleon III.ak, auto estatu kolpea ematen duenean. Inperio burua bere lehengusua denez, Louis Lucienek printze titulua eskuratuko du. Dena den, 130.000 frankoko betirako pentsio hori da onena. Hizkuntzen ikerketari bere bizitza eskain diezaioke. Ez dago aitzakiarik. Ingalaterran hasiko da. Ingeles hizkuntzaren aldaerek eta azpi-aldaerek txunditzen dute, eta hauek sailkatzen lehenengo izango da printzea: Plymouthetik Newcastle-ra, eta Kent-etik Blackpool-eraino. Hego-ekialdean, esaterako, izan aditzaren aditz-joko bakun eta liluragarri batekin topo egin du («*I be, thou bist, he be, we be, you be, they be*»). Eta nola deskribatu aurrizki misteriotsu hori? «*I have heard*» («entzun dut») ordez, «*I have ahead*» entzun du printzeak hainbaten ahoetatik. Bibliaren itzulpenak ere bilatzen ditu han-hemenka. Hauexek ditu ikerketa eta konparazioa burutzeko ezinbesteko tresnak. Eta horrela, entzunez eta transkribatuz, ingelesaren aniztasuna jasotzen duen mapa marraztea lortuko du. Espero zenez, bertako adituek apenas eskertuko diote ahalegina, meriturik ez diote aitortuko. Ingelesari dagokionez, zer dauka erakusteko frantziarrak, edo korsikarrak... kontinenteko gizaseme batek, azken finean? Printzeak ez du amore ematen. Galesera ere eskura dauka, eta jakin badaki kornikera ere inoiz hitz egin zela hegoaldeko mutur horretan. Dolly Pentreath izeneko arrain saltzaile bat izan omen zen kornikeraren azken hiztuna. Hizkuntza 1777an eraman zuen

hilobira, eta horrek biziki hun-
kitu du Bonaparte. Monolito
bat altxaraziko du bere ome-
nez. Edonola, korsikarrak bizi-
dunak nahiago ditu hildakoak
baino. Kaleko hizkerek pizten
dute bere grina beti, haixek
baitira garai aldaketei egoki-
tzeko tresnak dauzkatena. Bi-
zirik diraute, aske eta indar-
tsu. Hizkuntz literarioak,
ordea, negutegiko loreak be-
zain ahulak dira.

EUROPAKO BALEA ZURIA

Printzeak keinu lakonikoa
agertzen du dagerrotipoko
erretratuetan, aspertuta bizi
den pertsonarena. Baina ez da-
go bere gosea pizten ez duen
europar ahotsik. Albanieraren
bi dialekto nagusiak (toskoa
eta gegoa) ere begi puntuan
ditu; Balkanetan ez ezik, korsi-
karrak Italiako hegoaldean ja-
rraituko du arrastoa. Hain zu-
zen, Sizilian eta Kalabrian
mantendu da egundaino alba-
niar «garbiena», otomanda-
rrak Balkanetara iritsi baino
lehenagokoa.

Ordurako, Doctor Honoris
Causa da Oxford-en eta, Fran-
tzian, Ohorezko Legioaren do-
minak jaso ditu. Eta horiek bi
baino ez dira, sari eta aitorten
askoren artean. Dena den, os-
pearen distirak ez du bere mi-
siotik desbideratzen. Hiztunak
eta Bibliaren itzulpen gehiago
bestarik ez ditu behar bere
mapa osatzen jarraitzeko. Kor-
sikera ama hizkuntza duenez,
italieraren dialektoek ez dute
sekreturik berarentzat, baina
Italiakoa dugu mapa konple-
xuenetako bat. Iparraldetik
hegoaldera aldaketa gehiago
eman daitezke gaztelaniaren,
portugesaren eta frantsesaren
arteana baino.

Ikerketa sakona bezain lili-
ragarria da berea. Nola ahaztu
holandarra eta behe alemanie-
raren arteko harreman garbia?
Eta Eskoziako Shetland irl eta-
ko bikingoen hizkuntzaren
arrastoa? Erreparatu al dio
munduak Jutlandiako frisiar
aldaera zahar eta zoragarri ho-
rri? Iberiar penintsulako ipar-
mendebaldeak ere erakarri du,

horrexegatik eskatu dizkie
Londresen dauden galiziarrei
galegozko eta asturierazko
ebanjelioen itzulpenak. Seku-
lako ezagutza lortuko du, bai-
na ez du Galizia inoiz zapaldu-
ko. 71 urte dituela, Gonzales
Viana portugesaren dialekto-
logoari idatzitako gutunean,
osasun arazoak aipatuko ditu.
Korsikarrak Galizia «hil aurre-
tik bisitatu ez izanaren» da-
mua adieraziko du.

Hain da ikertzaile sutsua,
hainbeste eskaintzen dio bere
pasioari, apenas baitakigu
deus bere bizitzaz. Zein da,
alabaina, laborategiko tresne-

riaren interesa? Haien bidez
aztertzen den lagina da gakoa,
behatu beharreko mamia.
Zientzialari orok legez, Bona-
partek ere horrela ikusten du.
Bere ikerketa zabala tirada
urriko argitalpenetan biltzen
da beti. Berak sinatzen ditu ale
guztiak, eta gehienak hizkun-
tzalarien eskuetara iristen di-
ra, edo liburutegi nahiz hiz-
kuntza erakundeetara
helarazten ditu. Gutxi batzuk
baino ez dira salgai jartzen,
kantitate itzelen truk beti.

Europar dialektologia jar-
dun amaiezina da, mesianikoa
ere esan genezake. Balea zuria-

**Ingalaterran hasiko da ikerketarekin. Ingeles
hizkuntzaren aldaerek eta azpi-aldaerek
txunditzen dute, eta hauek sailkatzen
lehenengoa izango da printzea**

**Entzunez eta transkribatuz, ingelesaren
aniztasuna jasotzen duen mapa marraztea
lortuko du. Espero zenez, bertako adituek
apenas eskertuko diote ahalegina**



Lerro hauen gainean, kornikeraren azken hiztunetako bat izan zen Dolly Pentreath gogoan, Kornuallesen. Alboan, Gales. Bertako hizkuntza ere ikergai izan zuen printzeak. Paul MISON eta Nick KENRICK



San Jorge egunaren ospakizuna Sizilian.
Nicola BARBATO

ren harrapaketarekin baino ezin da konparatu, ziurrenik. Melvillek, preseski, orduantxe argitaratu zuen bere maisulana. Bere hitzek ezin hobeto deskribatzen dute Bonaparteren ikusmira.

«Nire erabakiaren bideak burdinazko errailak ditu, haie-tatik doa nire arima. Hondorik gabeko amildegietatik mendien bihotz lehorretaraino erortzen naiz, desbideratu ga-

be. Ez dago oztopo bakar bat ere, ez dago artekarik burdinazko errailetan»

Ez dago. Bere mapa marraztu nahi horretan, Europako ipar muturreko tundran zehar galduko da: vepsiera, votiera, ingriera, livoniera... Muga mehe eta iheskor horiek aurkitzeaz gain, beren deklinabide nahiz aditz-jokoak euskararenekin konparatuko ditu.

Clementina Richard Grandmontagne maite zuen. Frantziarrak euskara menderatzen zuen, bere ahizpetako bat Claudio Otaegi ikertzailearekin ezkontuta baitzegoen

Euskararen ikerketaren bidetik abiatzean, Otaegi bilakatuko da printzearen kolaboratzaile estuenetako bat. Korsikarraren ahaleginak aho bete hortz uzten du Otaegi

Orain aipatu dugu euskara lehendabiziko aldiz.

EUSKARA

Liburu ttipi bat baino ez zen hizkuntzalaritzako bere lehen lan hura (“Specimen lexici comparativi omnium linguarum europaearum”). Bere 56 orriak zutabez beteta zeuden, lexikoa konparatzea baitzen haren helburua. Zutabe bakoitzeko lehendabizikoa, hain justu, euskal hitza zen. Familia gabeko Europako hizkuntza bakarra izateak printzearen jakingura piztu du; hura, gurea izango da bere kuttunena.

Gogoan al duzue bere emaztea izan zen florentziar hura? Katoliko sutsua eta eguneroko meza zalea izaki, Bonapartek ez zituen inoiz botoak hautsi. Baina bere bizitzan maite izan zuen emakume bakarrak (guk dakigula) Clementina Richard

Grandmontagne izena zuen. Frantziarrak euskara menderatzen zuen, bere ahizpetako bat Claudio Otaegi ikertzailea rekin ezkontuta baitzegoen. Euskararen ikerketaren bidetik abiatzean, Otaegi bilakatuko da printzearen kolaboratzaile estuenetako bat.

1850ean Gasteizko alkatearekin harremanetan jarri bazen ere, sei urte igaro ziren printzeak Euskal Herrira lehen bidaia egin zuen arte. Elizan irudikatzen dugu, bere lehen sermoia entzuten; begiak itxita, euskarazko hitz jario horretatik bakarren bat harrapatu, ulertu, deskodifikatu nahian. Goizegi da oraindik. Momentuz, mailegu latindarrak bereiztearekin konformatu beharko du.

Beste lau bidaia izango dira eta, horietan, printzeak gogotik eutsiko dio bere eginkizunari. Korsikarraren ahaleginak aho bete hortz uzten du Otaegi. Gipuzkoarraren hitzetan, Bonapartek galdera trebez setiatzen ditu bere informatzaileak, kontraesan eta zehaztasun falta arinenak nabarmenduz beti, behin eta berrirez galdetuz...

«Zorionez, printzea ez da gerrazalea, bere osaba ez bezala; hala balitz, jainkoak berak ere ezingo luke gelditu», bota zion Otaegiri elkarriketatatu batek. Zorrotza da Bonaparte, belarri fina du, baita oso buru analitiko ere. Haiexek bere tresnak, erabakigarriak izan daitezkeen ñabardurak bereizteko, gizaki arruntek usaindu ere egiten ez dituzten horiek.

Gogoratu beharra dago grabagailu eta disko gogorrik gabe burutzen duela bere jarduna. Batetik bestera, haran eta muino artean, zaldi kotxe xume batean mugitzen da, ibilaldi amaigabeak ere tarteko.

Otsagabira iristerako, hain zu-
zen, hamar ordu izan dira oi-
nez. Gauez iritsi arren, bere
zain ditu herriko alkatea eta
kapilaua. Azken finean, Bona-
parte bat ez da herrian maiz
bertaratzen den norbait.

Baina korsikar leinukoak ere
gizakiak dira. 1867-1868ko ne-
guan, printzeak garun-eraso
bat jasango du, bere bizkorta-
sun intelektuala nabarmen
gutxitzen duena. Medikuek
gelditzeko eskatu diote, baina
ez dago galtzeko denborarik.
«Hegoaldeko goi-nafar aditza-
ren koadroak biziki nekatu dit
garuna. Nire buru gaixoa il-
tzatzen zaizkidan punta zorro-
tzen efektua egiten didate»,
idatzi zion 1872an bere lagun-
tzaileetako bati.

Hizkuntzalaritzari buruzko
209 argitalpenetatik, Bonapar-
tek 68 eskaini zizkion euskara-
ri. Zera izan zen euskararen

herrialdean egindako sartu-ir-
ten guztien helburua: denon
tzat aski ezaguna den euskal-
kien mapa linguistiko hura.
Printzearen arabera, euskara
hiru taldetan banatuta dago:
mendebaldekoa, ekialdekoa
eta erdialdekoa. Haietatik, zor-
tzi euskalki bereizten dira, eta
hogeita bost azpieuskalki, 50
aldaeratan banatuta. Ehun ur-
te baino gehiago igaro ziren
mapa hori Euskaltzaindiako
kide eta ikertzaile Koldo Zua-
zok 1998an berrikusi eta egu-
neratu zuen arte.

Argi dago hizkuntzak eta,
bereziki, euskara maite izanak
bultzatu zuela Bonaparte. Bai-
na ezin da ukatu horretarako
baliabideak ere behar zirela,
eta printzeak bazituen. II. In-
perioa erori zenean, Eugenia
enperatriz ohiak (bere lehen-
gusinak) eskainitako pentsioa-
ri esker bizi zen. Geroxeago,

**Hizkuntzalaritzari buruzko 209
argitalpenetatik, 68 eskaini zizkion euskarari.
Euskal Herrira egindako sartu-irten guztien
helburua: euskalkien mapa linguistikoa**

**1867ko neguan, printzeak garun-eraso bat
jasango du, bere bizkortasun intelektuala
nabarmen ukitzen duena. Medikuek gelditzeko
esan arren, ez du galtzeko denborarik**

1883an, Gladstonen Gober-
nuak 250 liberako urteko pen-
tsioa eskaini zion, «Ingalate-
rrako dialektoei buruz
egindako lanagatik». Bizitzeko
nahikoa zuen, baina ez amets
egiteko. Diruarekin batera osa-
suna ere galdu zuen. Horiek
biak falta direla, nekez bidera
daiteke hizkuntzak esploratze-
ko kanpaina berririk.

Bonaparte 1891n zendu zen.
68 urte zituela, ahotsez beteri-

ko milaka gutun eta eskuizkri-
buren artean itzali zen. Hain-
beste zegoen egiteke oraindik,
hainbeste hitz eta esamolde
entzun eta katalogatzeko...
Hizkuntzen printzea Londres-
ko Santa Maria Hilerri Katoli-
koan dago hilobiratuta. Ber-
tan, ingelesez idatzitako
epitafio xume batek bikain la-
burtzen du bere pasioa:

«Filologia Konparatuari es-
kaini zion bere bizitza».

Ezkerrean, Bonaparte
printzearen argazki
urrietako bat. Lerro hauen
azpian, Frisiako errota bat.
Bertako hizkuntzak biziki
piztu zuen printzearen
jakin-mina.
Rango VEUGER

